

Mekanika, elektrizitate eta elektronika ikastaroak langileentzat

■ Hernani Institutuak antolatu ditu ■ Plazak izena eman ahala gordeko dira
■ Debalde dira ■ Eusko Jaurlaritzaren Hobetuz planaren babesa dute



Hernani Institutuko ikasleak tailerrean.

HERNANI Institutuak langileentzat sei hilabeteko 20 kurtso antolatu ditu. Ikastaroak mekanika eta elektrizitate-elektronikan formatzeko dira, Hernani eta inguruko enpresetan lanean ari direnei daude zuzenduta.

MEKANIKA

Institutuak mekanikan trebatzeko honako 13 ikastaro hauek emango ditu: CNC tornuan programazioa eta eragiketa; CAD-Autocad (4 ikastaro); Kalitate kontrola (2 ikastaro); Makina osagarriak; Neumatika; Elektro-neumatika; Bistak eta Krokizazioa (bi ikastaro) eta Errepresentazio grafikoa fabrika-zio mekanikoan.

ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA

Elektrizitate-Elektronika sailean 7 ikastaro eskainiko ditu Institutuak: *Instalazio domotikoen diseinua eta egitura: sistema zentralizatua; Automatismo programagarriak; Antena instalazioak jarri eta mantendu; CAD elektrikoa; Instalazio karneta ateratzeko presakuntza; Instalazio domotikoen diseinua eta egitura: BUS EIB; eta Automatismo elektroteknikoak.*

URTARRILETIK EKAINERA

Formazio ikastaroak hilabete honetan bertan hasi eta ekainera bitartean izango dira, astelehentik ostegunera. Egunean

3 ordu emango dira: arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara. Institutuak Karmelo Labakan duen egoitzan emango dira. Azpimarratzekoa da ikastaro bakoitzean gehienez 10 pertsonentzako tokia egongo dela. Eta plazak izena eman adinean gordeko dira

% 100 DEBALDE

Ikastaroak Eusko Jaurlaritzaren Hobetuz formazio planaren barruan daude eta berak finantziatzen duenez debalde eskainiko dira.

☎ 943-3330550

Ikastaroei buruz argibide gehiago nahi duenak Karmelo Labakara jo edo goiko telefono horretara hots egin. □

Osasun ona izaten ikasteko zikloa, Biterin

■ 'Sumendi' elkarteak 12 hitzaldi emango ditu ■ Urtarrilaren 10ean hasiko da, datorren ostegunearan.



Eneko Landaburu 'Sumendiko' kideak Hernanin Ongintzak antolatuta emandako hitzaldia.

'SUMENDI' elkarteak osasunari buruz ikuspegi berezi bat duen kolektiboa da. Datorren astetik aurrera, osasun ona edukitzen ikasteko klabeak esplikatuko ditu Hernanin, Biteri kultur etxeak antolatutako zikloan.

Zikloak 12 klase edo hitzaldi izango ditu, baina, Sumendik alde teorikoari adina garrantzi emango dio praktikoari. Klaseak astean behin izango dira, 19:00etatik 21:00etara; eta denera, hiru hilabeteko zikloa osatuko dute

BI ZATI

Gaiei dagokien, osasunari buruzko zikloak seina klaseko bi zati ditu: **bat)** osasuna alde fisiko eta sozialetik ikusita; eta, **bi)** osasuna alde psikiko eta sozialetik ikusita.

Osasuna eta bere alde fisiko eta sozialaren gainean, gai hauek aztertuko dira: 1) Zer da gaitza eta zertarako balio du;

2) Bizitzaren medikalizazioa; 3) Tratamendu medikuei alternatibak; 4) Bereziki emakume helduak izaten dituzten osasun arazoak; 5/6) Jana ezagutzea gaitzari aurrea hartu eta sendatzeko.

Osasunaren alde psikiko eta sozialari dagokien ere, beste sei klase: 1) Geure buruak ezagutzea; 2) Buruari *bizitza* ona emateko baldintzak; 3) Emozioen mundua; 4) Iraute hutsa egin beharrean nola bizi; 5) Harremanak nola bultzatu; eta 6) Gaixotzen gaituzten egoerak gizarte zionala nola bultzatu.

Debalde da eta ez dago aurretik apuntatu beharrik. □



OIALUME BILTOKIA.

Zorionak eta urte berri on guztio!

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

19:30etatik aurrera

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Antziola-Motor
Zorionak eta urte berri on!

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI



Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

Mobiletan eskeintza bereziak:

ERICSSON T20
107,58 eurotan (48,08 deitan)

MoviStar Activa Pack MoviStar Activa + CD torrea + Discman funda

Ericsson T20

Xenon Computer **ORDENAGAILUAK**

¡¡MUGITU!!
... eta aurrezku 45.000 pza zure ordenagailua erosierakoan.

AVID 900
128 Mb RAM
20 GB Disco duro
Monitor 15"

299,91 EURO

¡¡Gainera...gure mahiko PC guztietan SERIEAN...!!

ESTUCHE CD-HOME
KIT PEOPLE CALL


Chillida-Lekun festa gaur, arazoak dituzten ume eta gazteen alde

■ Biltzen den dirua 'ANAR' fundazioarentzat da ■ 11:00etan ■ Sarrera: 6 euro.

CHILLIDA-Lekuk urtea bete du eta Chillida familiak ANAR fundazioarentzat laguntza festa eginez ospatuko du.

ANAR Fundazioak laguntza-telefonoa izeneko zerbitzua du (☎ 900-202010) eta behar larrian dauden ume eta gazteek deitzen dute. 2000garren urtean 7.000 dei jaso zituen Elkarte Autonomotik baina, oraindik ez du egoitzarik hemen. Horretarako da gaurko dirua.

Egitaraua: musika, antzerkia, Perurena aita-semeak harri jasotzen, txokolatada eta abar.



Chillida-Lekun ANAR fundazioarentzat egingo dute festa.

■ FUTBOLA -GORENGO MAILA

Goi-postuetan sartzeko partidua Ordizian

■ Gorengo mailako taldea bederatzigarren dago sailkapenean ■ Gaur irabazita, puntu batera jar daitezke hirugarrenetik ■ Azken partiduetan primeran ari dira.



Hernaniko gorengo mailako taldea, Urolaren kontrako partidua jokatu baino lehenago.

HERNANIK partidu garrantzitsua du, gaur, Ordizian. Joan den astean Urolaren kontra irabazi eta gero, goiko postuetara begira jarri dira.

Hernanik 28 puntu dauzka

eta bederatzigarren dago. Zortzigarren Pasaia 31 punturekin eta hurrengo bost ekipoak 32 punturekin daude. Gaur irabazita, hirugarren postutik puntu bakarrera geratu daitezke.

Hernaniarrak ondo ari dira etxetik kanpo. Ordizia nahikoa atzean (14garren) dago 19 punturekin. Gaur aukera ezin hobe dute beste erakustaldi bat emateko. □

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Ordizia-Hernani	Altamira	Gaur, 15:30	Kadet. Ohor.	Hernani-Arrasate	Zubipe	Gaur, 12:00
Emakum. liga.	Amara-Hernani	Martutene	Gaur, 19:00	Kadet. 2.maila	Hernani-Lazkao	Zubipe	Gaur, 10:00
1. Erregionala	Hernani-Marifio	Zubipe	Gaur, 16:30	Haurrak Ohor.	Eibar-Hernani	Eibar	Gaur, 16:30
Gazteak. L. Naz.	Indartsu-Hernani	Soloarte	Gaur, 16:00	MAHAI TENISA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gazteak Ohor.	Anaitasuna-Hernani	Azkoitia	Bihar, 15:30	Bigarren maila	Leka Enea-Hernani-Easo	Irun	Gaur, 12:00
PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ			
Paleta goma neska	Hoz-Lujanbio	Burutaran-Valero	Kiroldegia	Gaur, 16:30			
Eskuz binak infantilak	Grajal-Ezeiza	Gazteleku	Kiroldegia	Gaur, 16:30			
Eskuz binak Jubenilak	Lapuebla de Labarka	Alvarez-Sbastian	Lapuebla	Gaur, 17:00			
Eskuz binak infantilak	Altzatarra	Ojuel-Fernandez	Altza	Gaur, 11:00			
Utzi Hernani Pakean	Valero-Imaz	Aitzol-Aitor	Kiroldegia	Gaur, 09:00			
Utzi Hernani Pakean	Otaño-Lizartza	Leg-Zubi	Kiroldegia	Gaur, 10:00			
Kronika Txapelketa	Aritz-Mikel	Garmendia-Zabala	Tiloseta	Gaur, 16:00			
Kronika Txapelketa	Alvarez-Arruti	Joxe-Zelaia	Tiloseta	Gaur, 16:00			

Hernaniko meza telebistan

■ Gaur 19:00etan grabatuko du ETB-k San Joan Bataiatzailea parrokiari ■ Emititu: igandean 10:30etan.

EUSKAL Telebista Hernaniko meza emititzen ari da Gabonetan. Dagoeneko bota dituzte: joan den igandean eta Urte Berri egunean. Errege egunean ere San Joan

Bataiatzailea parrokiari grabatuko meza botako du Euskal Telebistak, euskerazko katean. Meza gaur arratsaldean bertan grabatuko dute. 19:00etan. □

Erregeen Kabalgatarik ez

■ Azken urteetan, Errege bezpera egunez Erregeen Kabalgata egin izan da Hernanin. Aurten, ordea, ez da Kabalgatarik izango.

■ MAHAI TENISA-BIGARREN MAILA

Hernani-Easok gaur irabazi ezkerro, bigarren

■ Hernani-Easok Irungo Leka-Enea taldearen kontra jokatu du gaur, lehenengo fasean atzeratutako partidua. Orain, bigarren dijoa sailkapenean eta gaur irabazten badu postuari eusteko asko ditu. Hala ere, beste talde batzuk ere badituzte atzeratutako partidua eta haiek jokatzeko gauzak aldatu litezke. Bestalde, Liga Autonomikoan Hernani-Easok 4-1 galdu zuen Gasteizen kontra, aurreko astean jokatuako partiduan.

■ PELOTA

Txapelketa ezberdinetako partidua, gaur

■ Hiru txapelketetako pelota partidua jokatu dira gaur Hernanin. Goizeko 09:00etatik aurrera, *Utzi Hernani Pakean* plataformak antolatutako txapelketako semifinalak jokatu dira kiroldegian. Arratsaldean, 16:00etan Kronika pelota txapelketako bi partidu jokatu dira, Tilosetan. 16:30etan, berriz, Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelketako bi partidu, kiroldegian. Txapelketa bereko beste bi, berriz, Lapuebla de Labarka eta Altzan.

■ KIROLAK

Kirol askok, jai

■ Kirol askok asteburu honetan ez dute partidurik jokatu. Honela waterpolo, boleibol, eskubalo eta errugbiko taldeek jai egingo dute asteburu eta datorrenean ekingo diote berriz ligari. Eskolarteko kirola ere datorren asteburutik aurrera hasiko da.

ZINEA BITERIN: 'Training day'. 22:30etan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gaez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793



Skoda Fabia Sedan. Egin ezazu amets.

MENABI

Txingurri pas. 26 - Herrera auzoa - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

ITXASPE ARRANDEGIA
Arrain eta marisko lotearen zozketan irabazlea:
PILI AIERBE
ITXASPE arrandegiak eskertu nahi ditu bezero guztiak, konfiantzagatik.
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

